

KANALAK

On-line komunikazio kanalak:

❑ Webgunea

Webgunea ANUBISen burutuko da eta 695€-ko kostua izango du. Hau bateragarria izango da gailu guztiekin. Webgunean zer da PREDICTION, enpresari buruzko informazioa, gure helburua, betaurrekoen diseinuak, produktuaren berrikuspenak, salmenta zerbitzua, bezeroak dohaintzak egiteko aukera enpresa laguntzeko eta SEOa (Web posizionamendua) hobetzeko hainbat kategoria izango ditugu.

❑ Orria Facebook-en

Hau ez du inongo kosturik izango. Astean behin post bat igoko dugu gure produktuari buruz eta nola laguntzen duen gure bezeroei.



❑ Instagram

Profil bat egitea ez dauka inongo kosturik eta hemen ofertak, deskontu kodeak, zozketak, lankidetzak eta gure produktuari buruzko informazioa igoko dugu.



❑ GKE-ren gertaerak

Gure enpresarekin lan egiten duten GKE-ek antolatzen duten gertaeretara joango gara, GKE-ek gure produktuari iragarki egitearen truke.



Banaketa kanalak:

Gure enpresaren banaketa kanala etxean bertan izango da. Bezeroak sare sozialen edo webgunearen bidez eskatuko dute produktua. Entrega epea 3 eta 7 egunen artean izango da, gure banaketa enpresari esker UPS.

